

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko urtarrilaren 6a. IX. urtea. 2.338. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



→ **Iritsi dira Errege Magoak.** Urduritasuna zen nagusi atzo arratsaldean Tolosako lurreamendin. Errege Magoen bisita jaso zuten egoitzan, eta haurrak txintik esan gabe jarri ziren ilaran Erregeei opariak eskatzeko. Lurreamendiko lana bukatu eta gero, hiru pertsonaiak Izaskunera igo ziren, bertatik jaitsi eta ohiko kalejira egiteko. Tolosaz gain, gainontzeko herrietatik ere pasa dira noski, Erregeak, eta opari ugari banatu dituzte. ◉ 3

## Mikel Garmendia

Euskal preso ohia

«Epaia jakiterakoan izugarritzko presioa kendu dut gainetik»

Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbitu berri du gazte billabonatarra

Elkarrizketa ◉ 6



## Euskadiko Sokatira Txapelketako sei sailetan ariko da Ibarra

Goma gainean lehiatuko dira, zortzi saio eginez, eta bihar izango da lehenengoa; gizonetzkoetan lau, eta emakumetzkoetan bi sail izango dira jokoan ◉ 2

## A-15era sartzeko Berastegiko bidea ireki dute uste baino lehenago

Azaroaren 5 eta 6ko uholdeek eragindako kalteengatik bi hilabetez itxita egon da; malda egonkortu dutela azaldu du foru aldundiak ◉ 2

## Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

• **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.

Ibarran: Lurdes liburudendan.

Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan, Babel liburudendan eta Elkartasun dendan.

Villabonan: Kazetaria liburudendan.

• **HITZAko butegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

• **Eskaintza berezia**

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.



## Eguberri abestiak eta polkak nagusi, Errege eguneko kontzertuan

Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak emanaldia egingo dute, 12:30ean, udal musika eskolan

**I. Garcia** Tolosa

Errege eguneko kontzertua emango dute, gaur, Tolosako Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak. Udal musika eskolan izango da emanaldia, 12:30ean. Egitarauan Eguberrietako abestiak eta polkak nabarmenduko dira.

Aurrena, Udal Txistulari Bandaren txanda izango da. Hiru obra eskainiko dituzte guztira bere emanaldian: *Ansola anaiak*, J. I. Ansorenak konposatutakoa; *Mari Celi* polka, F. Kortok idatzitakoa; eta *Azterriko Eguberriak*, J. I. Ansorenarena hau ere, Alemaniako Eguberri kantetan oinarrituta. Txistulariak zuzentzen,

ohi bezala, Iñaki Letamendia arituko da.

### Mokoroa eta Strauss

Txistularien jardunaren ondoren, Musika Bandaren txanda izango da. Zortzi pieza joko dituzte, Luis Mari Gartziazen zuzendaritzapean. Hasiera batean, Tolosako ukitua izango du kontzertuak, Eduardo Mokoroaren *Errege jaia* obrarekin hasiko baitira.

Hortik aurrera, Musika Bandak eta entzuleek ere, Vienara musika bidaia egingo dute. Hiru polka joko dituzte musikariek, hiruak Johann Strauss konpositorearenak: *Feuerfest*, *La Chasse* eta *Trish Trash*. Musikagile berarekin jarraituz, beste lau obra joko dituzte: *Perpetuum Mobile*, *A rillas del Danubio Azul* balsa, *Bajo truenos y relampagos* polka eta *Marcha Radetzky*. Urteberri egunean Vienako kontzertuan entzuten diren zenbait obra, beraz, gozatu ahalko dute tolosarrek.

## Ferialekua prest egongo da astelehenetik, konpartsak eraikitzeke

Lekua erabili nahi duten inauterizaleek aurretik nahitaez izena eman behar dute kultur etxean

**I. Garcia**

Inauteriko konpartsa eraikitzeke Ferialekua erabili nahi dutenek, datorren astelehenetik aurrera prest egongo dela jakinarazi dute udaletik.

Ferialekua erabili nahi dutenek aurretik tokia eskatu behar dute kultur etxean. Bertan oina-

rrizko datuak eskatuko dizkiete (izen abizenak, telefonoa, plataformaren neurriak...). Horrekin batera, bere konpartsa egiteko tokia esan eta giltza emango zaie inauterizaleei.

Udaletik azaldu dutenez, ez da onartuko kultur etxean izenik eman gabe zuzenean tokia hartuko duen talderik.

### Txarangen bilera

Udaletik bilera batera deitu dituzte Inauterietan parte hartu behar duten txarangak. Datorren astelehenean izango da bilera, hilaren 9an, kultur etxean, eta 19:00etan hasiko da.

## ‘Gabonetako ipuina’ren bertsioa, biharko txotxongilo ikuskizunean

Angeles de Trapo taldeak ‘El señor Scrooge’ antzezlan eskainiko du, 18:30ean, Topic aretoan

**I. Garcia** Tolosa

Charles Dickens idazlearen *Gabonetako ipuina* obraren bertsioa egin du Angeles de Trapo taldeak. Ipuinaren pertsonaia nagusiaren izena hartu du obrak: *El señor Scrooge*. Bihar izango da emanaldia, Topic aretoan, 18:30ean.

Obraren sinopsiak dioenez,

Scrooge jaunak «ohiko zitalkeria-ekin hasi ditu Eguberrietako ospakizunak, bere idazkari leial eta iloba alaiari garrasi eginez».

Dickensen ipuinean bezala, Scrooge jaunak iraganeko, oraingo eta etorkizuneko Eguberrietako mamuen bisita jasoko du, eta bere begiak irekiko dizkion bidai batera gonbidatuko diote. Bidaia horretan Scrooge jaunak onartu nahi ez dituen egia horiez jabetuko da.

Familia osoari zuzendutako ikuskizuna da. Sarrerak Topic zentroko txarteldegian eta [www.topictolosa.com](http://www.topictolosa.com) webgunean eskuratu daitezke.



Obraren une bat. HITZA

## A-15era sartzeko Berastegiko bidea ireki dute aste honetan

Uholdeen ondorioz sortutako luizi arriskua konpontzeko, itxita egon da sarbidea azarora hasieratik

**I. Garcia** Berastegi

A-15ean Andoaingo norabidean sartzeko bidea zabaldu da aste honetan Berastegin. Uholdeak sortu zituen eurteak hainbat lekutan luiziak eragin zituen, tartean

A-15ren ondoan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasun departamentuak Berastegiko sarbide hori azaroaren hasieran itxi egin behar izan zuten, luizi arriskuaren ondorioz konponketa lanak egin ahal izateko.

Lanek urtarrilaren 9ra arte iraungo zutela iragarri bazen ere, azkenean urtarrilaren 3an zabaldu ahal izan da sarbidea, aldunditik azaldu dutenez.

Izan ere, foru aldundiko teknikariek egindako jarraipenaren

arabera, malda egonkortu egin da, eta horrexegatik hartu da lehenago irekitzeko erabakia, gaineratu dute aldundiko informazio zerbitzuek.

### Leitzatik sartu dira, bitartean

Berastegiko sarbidea itxita egon den bitartean, Berastegitik Andoaainera joan nahi zuten erabiltzaileek Leitzan hartu behar izan dute A-15a. Aldaketa egitera behartuta egon direnentzat, aldundiak seinaleak jarri zituen desbideratze guztiak egoki azaltzeko.

## Irudia Tolosa



## BULARRA EMATEARI BURUZ, SOLASEAN

Tolosako Aranburu jauregian dagoen Esna-bidean talde erakusketaren barruan hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Besteak beste, astero edoskitze saioak egingen ari dira. Bertan, bularra emateari

buruzko iritziak, kezak eta esperientziak partekatzen dira. Bestelako ekitaldiak ere egingen ari dira. Esaterako, etzi, Itziar Saenz de Ojier ipuin kontalariak saioa egingo du, 18:00etan hasita. [www.16](http://www.16)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Errege Magoek Tolosako Iurreamendi egoitzan egin dute lehen geldialdia. Eskualdeko hainbat herritan txikienek Meltxor, Gaspar eta Baltasar Erregeekin eta euren laguntzaileekin egoteko aukera izan dute.

# Opariak banatu, eta agur esan dute

**Eneritz Maiz**

**A**benduaren 25a, Olenzerok utzitako opariekin esnatu zen, eta gaur, hilak 6, Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoek utzitako opariak zabaltzeko eguna izan ohi da. Hori horrela izateko, urtean zehar txintxo portatzea beharrezkoa izaten da.

Eskualdeko lehen geldialdia, Tolosako Iurreamendi egoitzan egin zuten. Hortik aurrera, eskualdeko hainbat herritan izan zuten huts egin ezineko zita. Tolosaldeko eta Leitzaldeko haur guztiak zain-zain izan zituzten.

Irribarreak eta malkoak eragiten dituzte txikiengan, baina guraso eta helduei ere irribarra aterarazten abilak dira Errege Magoak. Batzuek ez dute beldurrik sentitzen, eta bi aldiz pentsatu gabe esertzen dira magalean.



Adi-adi entzun zituzten Errege Magoek esandakoak. E. MAIZ

Besteak, ordea, urrutitik begiratzeten diete. Besarkadak, muxuak, gozokiak eta opariak banatu dituzte herri guztietan.

Atzo, goizohertzeko mezua helarazi zieten txikienei, gaur

goizean jaikitzean, opariak izan ditzaten. Gaua etxex etxe opariak banatzen pasa ostean agur esan dute. Astelehenean eskolara bueltatu aurretik, hiru egun dituzte opariekin jolasteko.



Haur guztiek izan zuten aukera banan-bana, Erregeekin egoteko. E. MAIZ

## Irudia ◊ Areso



## HERRIKO URA TRATATZEKO

Areson hondakin urak tratatzeko bi araztegi egiten ari dira. Irudian ikus daitekeena herri sarreran egiten ari direna da. Batek, herriguneko hondakin urak tratatuko ditu, eta besteak, industriagunekoak. Bi araztegiak eraikitzeak milioi bat eurotik gorako kostua du. Industrieguneko udalak ordainduko du, eta herrikoaren %80a Nafarroako Gobernuak, eta falta den %20a herritarrek ordaintzen duten saneamendu kanonaren bidez ordainduko da. E. MAIZ

## PSE-EE atez ateko zabor bilketaren aurka azaldu da

Bilduko alkateek Hondakin Patzuegora bidalitako gutunaren harira azaldu dute beren postura

### Erredakzioa

Villabonako eta Tolosako PSE-EE alderdiak gogor salatu du abendu hasieran Bilduko 50 bat alkatek Gipuzkoako Hondakin Patzuegora bidalitako gutuna. Ohar horretan, ordezkatzen duten udal gobernuek hondakin ez sortzeko konpromisoa hartzen zutela adierazi zuten. «Gaikako bilketa-sistema eraginkorrak erabiliaz, frakzio bakoitzari dagokion tratamendua eman ahal izango diogu», azaldu zuten.

Horiek horrela, Tolosako PSE-EE alderdiak mozio bat idatzi du, eta hurrengo osoko bilkuran eztabaidatuko dutela diote. Izan ere, pasa den bilkuran ez zuten eztabadatu, ez zutelako mozioa garaiz sartu. Alderdi sozialistako kideek Bilduko alkateek gutuna bidali izana gaitzetsi dute. Beren ustez, alkateak udalbatzaren izenean hitz egiteko, honek aurretik gaia

ezagutu behar du, eta atez ateko zabor bilketari dagokionez, honek «herriko hondakinak biltzeko modua» bakarrik hartzen duela kontutan esan dute. «Honek ez du zerikusirik hondakin gero izango duen trataerarekin. Batzuk ez du zerikusirik bestearekin», azaldu dute. Tolosako PSE-EE alderdiaren ustez atez ateko zabor bilketa «osasunaren kalterako» da.

Arestian aipatu bezala, azken osoko bilkuran ere gaiaren inguruan hitz egin zuten, eta bertan, alkateak gutuna udal gobernuren izenean bidali zuela, eta ez udalaren izenean argitu zuten.

Era berean, bertan ez dela esaten atez ateko zabor bilketa martxan jarriko denik esan zuten, baizik eta hondakinak biltzeko sistemaren gaineko eztabaida martxan jartzeko apustua egiten dutela. Ondorioz, sistema eragin-

korrenaren bila joan behar dela esaten zuten gutunean.

### Villabonako ordezkaria

Villabonako zinegotzi Maria Luisa Arijak bere aldetik, gauza bera egin du, eta gaiaren inguruko mozioa sartu duela azaldu du –otsailan eztabaidatuko dute–. «Oso penagarria da Villabonako alkateak bere kontura eskutitza bidaltzea, oposizioko gainontzeko alderdiak kontutan hartu gabe», azaldu du. Era berean, alkateari galderak egin dizkio: «Noiz eta non erabaki du atez ateko zabor bilketa indarrean jartzeko ikerketa egitea?». Harago ere egin du kritiketan: «Gure susmoa da zaborra batzuentzat negozio bilkai-na bihurtu dela».

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Interinoa.** Adineko pertsona bat zaintzeko, interino moduan arituko den pertsona euskalduna behar dugu Errezilen. Interesatuek, deitu 699 145856 telefono zenbakira.



## Kirol ugari egiteko aukera izango da asteburu honetan

Bihar eta igandean xake, mahai tenis, futbola, eta saskibaloia partidak izango dira Usabal kirolegian

### Leizta Urtza

Mende laurdena bete du jada Jose Antonio Inasustiren omenez antolatutako Erregoen Xake Txapelketak.

Urtetako moduan, Tolosaldeko Auzera kirolekuak antolatuko du, parte hartzaileek bertan eman behariko dute izena. Igandean bertan, 09:30etik 10:00etara bertan izena emateko tartea izango da, eta jarraian hasiko dira xake partidak. Jokalaririk bakotzak 5 minutuko partidak jokatu dituzte.

**Shanti Txapelketako finalak**  
Aurten, urtarilaren San Jokateko finala Shanti Txapelketako finalak, 09:30ean hasita, eguerdiko 13:30ak bitarteko tartean izango dira gazte txakak arazo futbolaren jolastean. Usabeko behoko kanpaina, 09:30ean benjamin nesken finala izango da, ibartarrak eta Zurrunbikiak taldeen artean; benja-

min mutilak, Txispa eta Zuloaga Txiki taldeak, 10:15ean jokatu dute partida, 11:00etan aletxin nesken txanda iritsiko da, eta Baserriarrak eta Sasa taldeen arteko norgehiagoka izango da. Jarraian, 11:45ean, benjamin mutilen bigarren finala hasiko da, Sermaniengo Xibor eta Laskoraingo Tigreak taldeek jokatuko dute. Azkenik, 12:30ean Kalaberak eta Iurre taberna taldeek jokatu dute, aletxin mutilen mailan. Sasi banketarekin amaituko da txapelketa.

### Kirol gehiago Usabalen

Gabonetako oporraldiaren azken asteburuan kirol gutxiago izango den arren, Usabalen arloko dira hainbat talde. Bihar, mahai tenisa izango da egun osoan, behoko kanpaina. Eta beren, 11:00eta Tolosa-Lazkao futbol partida jokatu dute infantil mutilak, eta 16:00etan, bertik, Tolosa Hemami emakume seniorek. Igandean bi saskibalo partidak jokatu dituzte behoko kanpaina. Infantil mutilak 10:00etan jokatu dute lagunartekoa izango da bata, eta senior nesken mailako Take Aralar-Eskoriatza partida bestea, 12:00etan.



Aizkardiko kideak Katalunianko Aigüestortes-ko parke naturallean. ir13

Custuko lekuan aldaparik ez omen da, eta eskualdeko mendizaleek izango dute 2012an ere, hamaka eta bat tonor eta paisaje ezagutzeko aukera; mendi taldeek prest dituzte aurtengo egutegiak.

# Mendi gailurrera joateko gonbita

### Hizea Urtza

Hala zioen abestiak, **mendizaleek auzera, ozenen mendi gailurrera eskualdean ezin dira.** Bota sasoak jantzi eta makila eskuan dutea hasi zuten, pusa den igandean, eskualdeko hainbat eta hainbat mendizalek urte berria. Maldan gora aritze hori, ordea, ez zen urte garaino lo afizio zaharra da eskualdean arden.

Mendiak ure guturrak ere eman ohi dituen arren, konturak tonor ibiltze horrek nolabaitko mendeotasuna sortzen duela dihardu.

Tolosaldeko eta Leiztaldeko Aizkardi, Amaro, Alpino Uzturri, Hattiztan Raju-Bai Euskal

Herriari, Oargi, Sagain eta Mendibil mendi taldeetako kideek mendiaren eta naturaren droga horri lotuta hasi dute 2012. urtea ere, eta gehienek prest dituzte urte osoko egutegiak, aste behoko lanaldien ondoren, asteburu

### 2012ko federatu txartela egiteko aukera eskainiko dute talde gehienek aurten ere

nahisi jau egunetan Euskal Herriko eta kanpoko mendi taldeak.

Villabonako Aizkardik eta Tolosaldeko Oargi nahi Alpino Uzturri egitarau oparosa prestatu dute, gazteoenekin burutuko moduko irteera bereizki ere pre-

tatu dituzte. Mendizaleetaz gainera mugatutik haratago zabaltu, eta Espainiako eta Frantziako koba-zulo, mendi eta parajeak ezagutzeko dituzte auzera.

Ibarrako Bai Euskal Herriari Hattiztan Raju mendi taldeak, bertik, Euskal Herriko tolosak probetarako dituzte 2012an, mendiren xarraz gogatzeko. Astearen mendi taldeak, Sagainek, ez du hasi berria den urterako egitarau zehatzik prestatu. Auzurdiarekin irteerak antolatuko dituztela azaldu dute, baina auzurdi programatu gabe, ezin diren bezala. Bide bera aukeratu du auzera, Tolosalde Amaro azken mendi taldeek ere, eta talde handia ez denaz, irteerak euren artean erabakiko dituztela azaldu du kide batek, egitarauak auzurdi antolatu gabe.

### Federatu kanpainak sarean

Eskualdeko mendi taldeek, federatu txartela egiteko erantzusunak ere eskainiko dituzte, urteroko moduan. Amaro mendi taldeak <http://sites.google.com/site/amaro-rucnandia> webgunean zintzilikatu ditu txartel egiteko ordutegiak eta erantzunak; bide bera hartu du Asteasuko Sagain mendi elkartek eta <http://www.sagain.org> atarian inburtu dituzte jarraitu beharoko pusuak. o.tolosaldea@hitzza.info



Eziz amaituko da aurtengo Shanti Txapelketa. ir13



## ↓ Eskualdeko mendi taldeen 2012ko egitarauak

### AIZKARDI



- **Urtarrilak 22.** Donostia-Blanditz (945m)-Aginaga.
- **Urtarrilak 29.** Villabona-Buruntza (441m)-Zubieta (Gipuzkoa).

- **Otsailak 4-5.** Umeenskil Irteera, Somport.
- **Otsailak 12.** Azparren-Zariketa (1023m)-Agotz (Nafarroa).
- **Otsailak 19.** Villabona-Uzturri (730m)-Tolosa.
- **Martxoak 4.** Villabona-Urdelar (952m)-Villabona.
- **Martxoak 25.** 44. Aizkardiko mendi ibilaldia.
- **Apirilak 15.** Villabona-Zarate (420m)-Orto.
- **Apirilak 22.** Bardena negra-Santxo Abarkak (Nafarroa).
- **Apirilak 29-Maiatzak 1.** Gavarnie (Hautas Pyrenes).
- **Maiatzak 13.** Donaxiti-Beltzu (1123m)-Hausoxa (1.268m)-Behorlegi (Nafarroa Beherea).
- **Maiatzak 20.** Aralar.
- **Ekainak 10.** Lizara-Bertera (2.522m)-Liera del Bozo (2.570m)-Huesca).
- **Ekainak 16-17.** Neouvielle (3.091m) (Hautas Pyrenes).
- **Uztailak 7.** Sallent-Pico Anel (2.824m) (Huesca).
- **Irailak 8-9.** Picos de Europa.
- **Irailak 15-16.** Pont du Prat-Lustou (3.022m)-Ref. Viados-Bachimala (3.174m)-Pont du Prat.
- **Irailak 22.** Villabona-Herriotsa (1.010m)-Villabona.
- **Urtarrilak 21.** Barrio-Batikabo (1.201m)-Los Castros (1.049m)-Araba.
- **Urtarrilak 28.** Donostia-Ulla-Pasaia.
- **Azaroak 11.** 5. Argazki Rallya.
- **Azaroak 19-25.** Mendi Astea.
- **Abenduak 16.** Irurtzun-Goldaratz-Trinidad (1.094m)-Irurtzun (Nafarroa).

### ALPINO UZTURRI

- **Urtarrilak 15.** Zumala-Deba.
- **Urtarrilak 28-29.** Eskalpinia (Gourette).
- **Otsailak 4-5.** Espeleologia Kantabriar.
- **Otsailak 26.** Untzillatz.
- **Martxoak 10-11.** Pic des Molnes-Anoyet.
- **Martxoak 24.** Bodega-Sierra de Tolosa.
- **Apirilak 5-9.** Teide.
- **Maiatzak 12-13.** Arokl jaitziera Ikastaro. Fago-Arandart.
- **Otsailak 26-27.** Anisclio-Punta de las Olas.
- **Ekainak 9-10.** Pene Sarriete.
- **Ekainak 30-Uztailak 1.** Arokl jaitziera Antich-Lapassa.
- **Uztailak 14-15.** Pico Urbiou.
- **Uztailak 28-31.** Pico de los



- **Apirilak 15.** Beintza-Zoratxipi (1.069m)-Donamaria.
- **Maiatzak 1.** Gaztetxoentzako. Untzaga-Arando (943m)-Orduñoko mendateak.
- **Irailak 29-30.** Pic Long-Pic Mechant.
- **Urtarrilak 12-14.** Cresta Bachimala.
- **Azaroak 17-18.** Hiru Erregeen Mahala-Chinebral de Gamueña.
- **Abenduak 1-2.** Abodi.

- **Irailak 15.** Beintza-Zoratxipi (1.069m)-Donamaria.
- **Maiatzak 1.** Gaztetxoentzako. Untzaga-Arando (943m)-Orduñoko mendateak.
- **Irailak 29-30.** Pic Long-Pic Mechant.
- **Urtarrilak 12-14.** Cresta Bachimala.
- **Azaroak 17-18.** Hiru Erregeen Mahala-Chinebral de Gamueña.
- **Abenduak 1-2.** Abodi.



- **Urtarrilak 15.** Zumala-Deba.
- **Urtarrilak 28-29.** Eskalpinia (Gourette).
- **Otsailak 4-5.** Espeleologia Kantabriar.
- **Otsailak 26.** Untzillatz.
- **Martxoak 10-11.** Pic des Molnes-Anoyet.
- **Martxoak 24.** Bodega-Sierra de Tolosa.
- **Apirilak 5-9.** Teide.
- **Maiatzak 12-13.** Arokl jaitziera Ikastaro. Fago-Arandart.
- **Otsailak 26-27.** Anisclio-Punta de las Olas.
- **Ekainak 9-10.** Pene Sarriete.
- **Ekainak 30-Uztailak 1.** Arokl jaitziera Antich-Lapassa.
- **Uztailak 14-15.** Pico Urbiou.
- **Uztailak 28-31.** Pico de los

## BAI

BARRAKO BAI EUSKAL HERRIARRI-HAITZETAN RAJU

- **Martxoak.** Jaitzikel (Gipuzkoa).
- **Apirila.** Lapurdi.
- **Maiatzak.** Nafarroa Beherea.
- **Ekaina.** Zikro jatea presoen alde.
- **Uztailak.** Pirinioetara irteera.
- **Abuztua.** Eskalada txapelketa herriko festetan.
- **Urria.** Nafarroa.
- **Azaroa.** Araba.

Oargiko kideak, Behorlegin. ir13

## gabonetan, oparitu hitzaren jertsea

Mendizaleentzako jertseak

lehen 29,5 €

orain, eskaintza berezia

25 €

Mendizaleentzako jertseak  
Mendizaleentzako jertseak  
Mendizaleentzako jertseak  
Mendizaleentzako jertseak

Noiz eta nola egin eskaria?

Telefono: 903 82 02 01  
www.harpiditza@hitzza.info

hitzza



## Mikel Garmendia &gt; Euskal preso ohia

Fiskalak zortzi urteko espetxe zigorra eskatu zuen Garmendiaren aurka, ETArekin kolaboratu zuelakoan; Espainiako Auzitegi Nazionalak, ordea, aurkako iritzia azaldu eta absolbitu egin du gaztea.

## «Barruan zaudenean sufrimendua sentitzen duzu, eta kanpoan presioa»

Asier Imaz Villabona

Iribarrea ezpainetan baina burua hotz. Horrela aurkitzen da Mikel Garmendia (1984, Villabona), Espainiako Auzitegi Nazionalaren erabakia jakin ondoren: absoluzioa, errugabea... Hiru urte luze eta gogorren amaiera gertu ikusten du billabonatar gazteak.

2009ko martxoan atxilotu zuten, eta 15 hilabete pasa zituen espetxeetan. Ondoren, baldintzapean askatu zuten. Azken urtean epaiketaren zain egon da, «presiopean».

Pozik egoteko arrazoiak dituela onartu arren, barruan gelditu direnak aipatzen ditu, eta horiek askatzeko lanean jarraitu beharra dagoela dio. Urtarrilaren 7ko manifestazioa azpimarratzen du, baina horretan ez dela bukatzen gogoraraziz.

**Abokatuarekin egon zara duela ordu gutxi. Zer esan dizu berak?**

Hamar egunen bueltan epaia segurua den edo ez jakingo dugula. Oraindik fiskalak erabakia errekurrizeko aukera dauka, baina

abokatuak ez zuen uste fiskalak helegitea jarriko zuenik. Epaia ziurrenik absoluzioan geldituko dela esan dit.

**Espainiako Auzitegi Nazionalaren erabakia, komunikabideetatik jakin zenuen.**

Horrela da. Kotxean nindoala komunikabide batean lan egiten duen lagun batek deitu zidan. Pozik egongo nintzela esaten hasi zi-

**«Urtarrilaren 7ko deialdia bultzatu beharra dago, baina hor ez da amaitzen»**

tzaidan, eta nik ez nekien zertaz ari zen. Albistearena esan zidanean, harrituta gelditu nintzen. Gero herrian segituan zabaldu zen, eta ordu erdira mugikorra sutan nuen.

**Epaia jakin zenuen une horretan, zer sentitzen da?**

Izugarrizko presioa kentzen duzu gainetik. Niri behintzat hori gertatu zitzaidan. Hala eta guztiz ere, alde batetik poza sentitzen duzu,

baina bestetik, laguna hor gertatzen dela ikusten duzu, eta hori gogorra da.

**Fiskalak ETArekin kolaboratu izana leporatu zizun, zure aurka zortzi urteko espetxe zigorra eskatuz.**

Epaiketara egia aurretik genuela joan ginen, eta zorionez erabakia horrela aterata da. Manexek bere gain hartu zuen dena, eta lekukoen deklarazioa ere oso ona izan

**«Lanean jarraitu beharra dago, besteak lehenbailehen kanpora ateratzeko»**

zen. Ondorioz, heldulekurik gabe gelditu ziren.

**Errugabea, baina hiru urte horiek hor gelditzen dira.**

Azkenean sufrimendua da. Beraien eskuetan zaude eta nahi dutena egiten dute. Barruan zaudenean, familiarengatik eta lagunengatik sufritzen duzu. Milaka kilometro egin behar dituzte dispartzioagatik, eta gure etxeok, adibidez, istripua izan zuten... Su-



A. IMAZ

frimendua da. Gero kanpora ateratakoan, presio handia sentitzen duzu, bai lana bilatzerakoan edo baita konpromisoren bat hartzerakoan. Kanpora ateratzerik ez daukazu, astero sinatzera joan behar duzu... erabat mugatuta aurkitzen zara.

**Eta orain?**

Momentuz bukatu dela dirudi. Orain lanean jarraitu beharra dago, ea besteak lehenbailehen ateratzen ditugun.

**Azken urte hauetan gertatu dena kontuan hartuta, Villabonak ere**

**izango zuen horrelako albiste baten beharra.**

Une honetan hamar preso daude Villabonan. Azken 3-4 urteetan, lau izatetik hamar izatera pasatu dira. Hau aldatu beharra dago, eta guk lanean segituko dugu. Esperantza garaia ireki dela dirudi, eta horretan jarraitzea besterik ez zaigu gelditzen. Urtarrilaren 7ko deialdia bultzatu beharra daukagu, baina hor ez da bukatzen; orain hasten da lana, eta herriar guztiak animatu behar ditugu lanera.

## Irudia > Anoeta



## EGUNERO, 30 XAKE JOKALARI INGURU

Anoeta eta xakea sarri elkarrekin loturiko albiste izan ohi dira. Aukera duten bakoitzean, txapelketak ez badira, aisialdirako jardunaldiak antolatzen dituzte. Xakea indartzeko gainera, belaunaldi be-

rriekin gogotik egiten dute lan. Gabon hauetan, tradizio hori ederki uztartzen dutela argi gelditu da. Egutero, 30 xake jokalarik gaztetxo elkartu dira elkarren aurka aritzeko, eta ongi pasatzeko. HITZA

## Pilota eta patinaje ikastaroak hastear daude

Patinaje ikastaroa otsailaren 13an amaituko litzateke; pilotan iazko bideari jarraituko diote

A. Imaz Alkiza

Alkizako Udalak patinaje eta pilota ikastaroak antolatu ditu, eta hurrengo astean hasiko direla azaldu dute: «Atzerapenak atzerapen, patinajea hilaren 9an hasiko da, eta bestetik, frontoia berri-tua dagoenez, pilota hilaren 13an». Ikastaro bakoitzaren matrícula 10 eurokoa da, eta informazio gehiago udaletxean aurki daiteke.

Patinaje linealaren ikastaroa astelehenean hasi eta otsailaren

13an amaituko da. 5 eta 6 urtekoen ordutegia, 16:30etik 17:30era izango da, eta 6 urtetik gorakoenak, 17:30etik 18:30erakoa. Uxue Etxebestek emango ditu klaseak eta kaskoa beharrezkoa izango da. «Ikastaroaren helburua oinarriko maniobrak ikastea, era ezberdinetan frenatzen ikastea, giroak egitea, atzeraka ibiltzea, hainbat jolas irristaketa linealaren bidez egitea... dira», udaletik azaldu dutenez. Ikastaro amaieran, eguraldiak lagunduko balu, Asteasuko bide gorrian paseo bat emateko asmoa dute, hori bai, gurasoen parte hartzearekin eta txokolate bero baten laguntzaz.

Pilota ikastaroaren kasuan, lehengo urtean bezala antolatzea erabaki dute. Aitor Sorarrain irakasleak ostiraletan eskainiko ditu klaseak.

**Irudia** ◊ Leaburu-Txarama**URTEAREN HASIERA MENDIAN EMAN DUTE HERRITARREK**

Euskal herritar askok bezala, Leaburu-Txaramako herritarrek urtea mendira joanez hasi zuten. Urtero bezala, zenbait herritar, aurten ere, Erroxe mendira igo ziren. Bertan hamaiketakoa egin zuten, eta euskal presoak ere gogoan izan zituzten. Bestetik, Leaburu-Txaramako

Udalak herritarrei Gabonak zoriondu eta eskerrak emateko Lurlaneko produktuez osatutako saski bat zozketatu du Leaburuko eta Txaramako etxe guztien artean. Horretarako, Leaburuko eta Txaramako etxe bakoitzari bost zenbaki eman zitzaizkion. Zenbaki saritua hilaren

2ko ONCE itsuen elkartearen zozketaren azken hiru zenbakiak zituena izan zen, 868 zenbakia, hain zuzen. Leaburuko Ermitalde Etxeak zuen zenbaki hori. Herenegun eman zion Luisa Uzkudun Leaburuko alkateak zenbaki saritua zuen Ermitaldeko Mari Ugartermendiarri saria. mu.

**Ibarra goma gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketan ariko da**

Bihar jokatuko dute lehen jardunaldia; txapelketa amaitzean, Eskoziako Munduko Txapelketan izango dira

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Bihar hasiko da goma gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa. Gizonezkoetan lau sailetan lehiatuko dira, eta emakumezkoetan bitan, eta guztietan ariko da Ibarra. Lehen jardunaldia Artziniegako (Araba) kiroldegian izango da, bihar, 17:00etan hasita.

Lauko Euskadiko Txapelketa

bukatu zen iragan urteko abenduaren 17an, eta handik hiru aste-erako goma gainekoari ekingo diote. Aurten goma gaineko Munduko Txapelketa jokatu denez, Eskoziako Euskadiko Txapelketak ez du luze iraungo, Euskal Herritik parte hartzaile ugari izango dituelako. Hain zuzen ere, hilabete pasatxo iraungo du. Zortzi saio- osatuko dute txapelketa, eta horietako bat eskualdean izango da, Ametzketan, urtarrilaren 22an.

Gizonezkoetan, 680, 640, 600 eta 560 kilokoan arteko lehiak izango dira, eta emakumezkoetan, 540 eta 500 kilokoak. Ibarraren kasuan, guztietan lehiatuko dira, sei talderekin ariko dira, beraz.

**Bihar hasiko da Berria Txapelketa, eskualdeko hiru pilota elkarterekin**

Eskualdeko Aurrera Saiaz, Zazpi Iturri eta Intxurre taldeak ariko dira; denera 24 elkartek hartuko dute parte

**I. Terradillos**

Bihar hasiko da IX. Berria Pilota Txapelketa. Kadete, gazte eta nagusien mailako partidak izango dira ikusgai martxoaren 25era arte. Egun horretan, finala jokatuko dute, Hernaniko Galarreta pilotalekuan. 24 pilota elkartetako pilotariak neurtuko dira, tartean eskualdeko hiru.

24 pilota elkarteetatik, 23 Euskal Herrikoak dira: 8 Gipuzkoakoak, 7 Nafarroakoak, 5 Bizkaia-koak, 2 Arabakoak eta Ipar Euskal Herriko bat. Errioxatik ere pilota elkarre bat ariko da Berria Txapelketan.

Bada, lehen kanporaketak gaur eta bihar jokatu dituzte Hernanin, eta datozen hiru aste-buruetan jarraituko dute partidekin. Lehen kanporaketa honetan lehiatuko da eskualdeko Intxurre, Aurrera Saiaz eta Zazpi Iturri, berriz, zuzenean bigarren kanporaketekin hasiko dira, iazko txapelketan goiko postuetan amaitu zutelako. Irabazleak 3.000 euroko saria jasoko du.

**Herriko kultur talde, elkarte eta eragileak bilerara deitu ditu udalak**

**I. Terradillos** Ibarra

Udalak herriko kultur arloan lanean diharduten kultur talde, elkarte zein eragile guztietan bilera egin asmo du datorren asteartean, hilaren 10ean, 19:30ean, kultur etxean.

Ibarrako alkateak, Jexux Peña-garrikanok, deitzen duen bilkura- ren helburu nagusia 2012. urtera- ko kultura arloan herriko eragile ezberdinen egitasmoak azaltzea, eta etorkizun hurbilari begira, eragileen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako bideak eta aukerak aztertzea izango da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialde:** 687 410 034. alegialde@hitza.info.  
**Leizalde:** 687 410 118. leizalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernalde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalauntzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Nahia Lopetegi Etxedona**  
(Gaztelu). Gaur 2 Urte!  
Zorionak eta muxu asko etxeko  
guztien partetik.



**Zorionak!**  
**Maddi Begiristain.**  
Bihar 8 urte. Urte askoan  
sorgintxo! Manex, aitatxo eta  
amatxoren partez.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info  
**agurrak**

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldearen Inauterietako Astelenitako konpartsan parte hartu nahi dutenek 650 87 97 04 telefono zenbakira deitu behar dute.
- **Alegia.** Udalak etorkinei zuzendutako alfabetatze eta euskara eskolak antolatu ditu. Izena hilaren 13a baino lehen eman behar da, kultur etxean edo gizarte zerbitzuetan. Eskolak otsailen hasi eta maiatzean bukatuko dira.
- **Ikaztegieta.** Udalak herritarrek kirola egiteko ikastaroak antolatu ditu. Aerobik-a astelehen eta asteazkenetan izango da, 19:00etatik 20:00etara, eta pilates astearte eta ostegunetan, 09:00etatik 10:00etara. Izena eskola orduetan kiroldegira joanda eman daiteke.
- **Zizurkil.** Goiko zentroan bertso tailerra antolatu dute. Unai Mendizabalekin izango dira eskolak, eta urtariletik ekainaren 12a bitarte iraungo du. Eguna eta ordua izena emandako jendearen arabera erabakiko dituzte. Izena emateko Aurrera plazako udal bulegoetara jo behar da (943 69 24 95).

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** *Esna-bidean* erakusketa Aranburu jauregian, hilaren 14a bitarte. Askotariko lanak bil-

du dituzte: argazkiak, ilustrazioak, bideo bat ere badago ikusgai...  
■ **Tolosa.** *Baserritik Zerkausira* argazki erakusketa Aranburu jauregian. Hilaren 21a bitarte ikusi daiteke.  
■ **Aldaba.** Intxaur auzo elkarteak auzoko argazki zaharrak bilduzten dituen erakusketa prestatu du. Irudiak urtarilla bukaera bitarte ikusi daitezke, elkarteko liburutegian.

**TXOTXONGILOAK**

- **Tolosa.** Jada eskuratu daitezke hilaren 7an Topic zentroan Angeles de Trapo taldeak eskainiko duen Dickensen *Un cuento de Navidad* lanaren *El señor Scrooge* moldaketarako sarre-  
rak. Emanaldia 18:30ean izango da, eta haurrek 4 euro ordaindu behar dute, eta helduek 7 euro. Familia ugarietan, aldiz, haurrek 3 euro ordaindu behar dute, eta helduek 5. Sarrerak Topic zentroko txarteldegian, edota [www.topic-tolosa.com](http://www.topic-tolosa.com)-en. Familia ugariet, hala ere, Topic zentroko txarteldegian soilik eskuratu ahal izango dituzte sarre-  
rarak.

**MUSIKA**

- **Tolosa.** Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko dute gaur, 12:30ean, udal musika es-

kolan. Udal Txistulari Bandak *Ansola anaia*, *Mari Celieta Atzerriko Eguberria* joko dituzte; eta Musika Bandak *Errege Jaia*, *Feverfest*, *La Chasse*, *Trish Trash*, *Perpetuum Mobile*, *A Orillas del Danubio azul*, *Bajo Truenos y Relampagos*, eta *Marcha Radetzky*.

**ZINEMA**

- **Tolosa.** *Attack the block* filma gaur, 22:30ean, Leidorren. Bihar berriz, filma bera 19:30ean eta 22:30ean eskainiko dute. Eta igandean *Un dios salvaje* ikusteko aukera izango da, 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean ere, ikuslearen eguna, *Un dios salvaje* pelikula ikusi ahal izango da, 20:30ean.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola kalea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**ETZI**

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.
- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 24 38
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**INKERNU**  
jantzizintza

- Diseinuak
- EraIdaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • [elvinkernu@gmail.com](mailto:elvinkernu@gmail.com)